

# LAZKAO

| # 07 | 2016 ABENDUA |




LAZKAOKO  
UDALA



Zorionak eta  
urte berri on!



Lazkao  
HEGOAK HARRO





LAZKAOKO  
UDALA

2 0 1 7

*Lazkaoko Udalak Gabon zoriontsuak eta urte berri on bat opa dizue. Beste urte bat igaro da, eta herria ere etenik gabe ari da aurrera egiten. Kultur, kirol, gizarte, ekonomia, azpiegitura, hezkuntza... alorretan, eragile guztien elkarlanari esker.*

*Bide onetik goaz, eta horrela jarrai dezagun opa dizuegu guztioi.*

*Zorionak eta urte berri on!*

*Desde el Ayuntamiento de Lazkao os deseamos unas felices fiestas y un próspero año nuevo. Ya ha pasado un año más, y Lazkao sigue progresando sin descanso. El desarrollo en cultura, deporte, sociedad, economía, infraestructuras, educación... ha sido posible gracias al aporte de todos. Vamos por el buen camino, y deseamos a todos que sigamos así. ¡Felicidades y próspero año nuevo!*

## Editoriala

Talde, eragile eta norbanako askok urtean zehar egiten duten lanari esker da Lazkao horren herri bizia. Bakoitza egindako lanari eta jarritako aletxoari esker egiten dute aurrera Lazkaon antolatutako ehunka ekintza, jarduea eta ekitaldiak. Lazkaoko Udala jakitun da zuek guztiak gabe Lazkao ez litzatekeela den herria izango, eta horregatik, urte guztian zehar zuen lana balioan jarri nahi izan dugu.

Urte hasieratik eta esku artean duzun azken aldizkari hontaino, zenbakiz zenbakiz lekua egin nahi izan dizuegu guztioi. Zuetako bakoitzak egiten duen lana eta ahalegina ezagutzera eman nahi genien gainerako herritarrei, Lazkao zuek egiten duzuelako.

Kirola, kultura, hezkuntza, merkataritza, auzolana... uztartu ditugu, udal gaiekin batera, aldizkari sortan. Urtea amaitzearekin batera, ziklo hau ere itxi egin behar dugu, eta Lazkaoko Udalaren izenean eskerrak eman nahi dizkizuegu guztioi.

Neurri handi batean, eta lan honi eskerrak, asko izan zarete aurten ere Lazkaoren izena herritik kanpora atera duzuenak. Kultura, kirola... arlo eta maila ugaritan, ekitaldi eta txapelketa askotan parte hartuz eta baita irabaziz ere, Gipuzkoako, Euskadiko eta mundu mailako txapelketetan.

Ez dugu izenik jarriko norbait ahaztea erraza litzakeelako, baina guztioi ZORIONAK eta ESKERRIK ASKO.

Sois muchos los grupos, asociaciones y personas que trabajáis durante todo el año para que Lazkao sea el pueblo tan vivo como el que es. Gracias al trabajo y al granito de arena que aportáis cada uno de vosotros y vosotras salen adelante tantas y tantas acciones, actos y eventos. El Ayuntamiento de Lazkao es conocedor de que si eso no fuera así, Lazkao no sería lo que hoy en día es. Por eso, hemos querido poner en valor el trabajo que realizáis.

Desde comienzos de año hasta este ejemplar que tienes entre manos, número a número hemos querido haceros un hueco a todos vosotros. Hemos querido dar a conocer el trabajo que desempeñáis, porque sois vosotros los que hacéis Lazkao.

Junto con los temas del ayuntamiento, hemos enlazado temas de cultura, deporte, educación, comercio, trabajo comunitario... en todas las revistas publicadas. Pero con la llegada del nuevo año, hemos de dar por finalizada esta etapa. Os queremos agradecer en nombre del ayuntamiento a todos los que trabajáis a favor de Lazkao y esperamos que sigáis aportando vuestro granito de arena, para que juntos sigamos haciendo de Lazkao un pueblo vivo.

En cierto modo, gracias a este trabajo, habéis llevado el nombre de Lazkao fuera del pueblo. Cultura, deportes... en muchos campos y apartados, participando en otros tantos actos y competiciones y, además, ganando en muchos de ellos, tanto a nivel de Guipúzcoa, Euskadi o el mundo.

No daremos nombres, porque sería fácil olvidar alguno, pero FELICIDADES y GRACIAS a todos.





## Lazkao Txiki, herritik herriarentzat

Musika eta kultura herrira zabaltzea. Horixe izan da 20 urte hauetan Lazkao Txiki Musika Eskolaren helburua. Herriak herriarentzat egindako musika eskola izan da hasieratik eta erronka berriekin hasi dute ikasturtea, urteurrenaren bueltan eskaintza zabaltzeko asmoarekin.

**N**erea Barandiaranek sortu zuen Lazkao Txiki Musika Eskola 1996an. Etenik gabe haziz joan da eskolaren jarduna, eta beti herriari begira aritu da lanean, musika eta kultura lazkaotarrengana gerturatzen. Orain lau urtetik erabiltzen duten goiburuak argi adierazten du eskolaren izaera: "Herriak herriarentzako musika eskola".

"Kalitatezko irakaskuntza bat eskaintzeaz gain, herria aberastuko duten ekintza kulturalak sustatzea da helburua, herriko beste kultur talde eta dinamizatzailerekin elkarlanean". Hala adierazi du Aitor Biain zuzendariak. Musika zaletasuna zabaltea eta herrian musika ikasteko aukera izatea dira Lazkao Txikiren bi oinarri.

Ikasketa plan zehatza dute definituta, lau urtetik gorakoentzako ikasleentzat hasita, adin mugarik gabe: haurrak, gazteak eta helduak. Ikasketa profesionalerako lagunza eta ikasketak musikaren alorreto bideratu nahi dituztenentzako zehaztutako ikasketa plana dute Lazkao Txikin, ikasle bakoitzaren garapenera moldatuta.

### Bi aste garantzitsu

Ikaslegetatik at, herriko txoko guztietaera musika eraman dute eskolaren sorreratik bertatik. Ugari dira urtean zehar egiten dituzten ekintzak, eta askoz gehiago herriko gainerako eragileekin batera deitutako egunean eta lekuaren egiten dituzten emanaldiak.

Horiez gain, Lazkao Txikik bi aste garantzitsu izaten ditu urtean zehar: aste kulturala eta musikaren astea. Lehena martxo eta apirila inguruan, eta bigarrena maiatzean. *Musika ikasiz, entzinez, eskainiz hazi* lemapean egiten dute aste kulturala. "Orain lau urte sortutako proiektua da. Ordura arte kontzertuak egiten genituen bakarrik, baina ikasleek besteengadik ere ikasi dezakete eta horregatik beste ukitu bat eman nahi izan genion. Tайлerrak, hitzaldia eta kontzertu bereziak antolatzen ditugu zazpi egunez, leloak batzen dituen hiru zutabeak uztartuta".



"Musikaren astea gehiago da eskolarena". Gabonetako emanaldian ezin izaten dute ikasle guztiak parte hartu, eta denei aukera emateko aste betez eskolak gelditu eta urtean zehar ikasitakoa erakusteko egunak izaten dira. "Musika eskolako ikasleen audizioak, ate irekiak eta hitzaldi informatiboak antolatzen ditugu. Instrumentuak ezagutzeko erakustaldiak ere bai, eta ipuin musikatua eta combo konzertuak". Lazkaoko hainbat gunetan egiten dituzte emanaldiak, "herriak herriarentzat egindako emanaldiak izaten direlako".

Urteko bi zita hauei, bi berezi ere gehitu behar zaizkie Lazkao Txikiren azken urteetako ibilbidean. Batetik, Aspanogi elkarretek Lazkaon egin zuen jaialdirako musika eskolak egin zuen kolaborazioa eta musika eskolako ikasleek osatutako The Kites taldeak EITBko A Ze Banda! saioan izan zuen parte hartzea.

### Proiektu eta ideia berriak

2016-2017 ikasturtea berezia ari da izaten Lazkao Txikin, musika escola martxan jarri zutela 20 urte baitira. "Eskola egonkor bat bihurtu nahi dugu, urte hauetan landu dugun plan estrategikoari tiraka. Harizko talde bat, orkestra bat sortu nahi dugu, beste instrumentu batzuei bultzada eman, formazio guztiak egonkorrik izatea lortu".

Lazkao Txiki musika eta dantza escola izatea nahi dute. Dantza kontemporaneoa eskolaren eskaintzara ekarri nahi dute,



dantza modernoa eta balleta Lazkao Txikin ikasteko aukera egon dadin. "Herrian badago interesa, baina zerbitzuak falta dira. Udalarekin harremanetan gaude eta proiektua bide onetik doa. Asmoa da 2017-2018 ikasturtean ia proiektu berria martxan egotea".

### Lazkao Txiki-XX (1996-2016)

Lazkako Txikiko arduradunek herritarrekin ospatu nahi dute musika eskolaren sorreraren 20.urteurrena, eta ospakizun berezia prestatzen ari dira. Argazkia erakusketa bat jarri nahi dute, urte hauen errepasoak egingo duena. Horregatik, herritarrei dei egin diete, etxearen gordeta dituzten argazkiak jasotzeko. Urtarriletitik aurrera jaso nahi dituzte argazkiak, musika eskolaren bertan edo [lazkaotxikime@gmail.com](mailto:lazkaotxikime@gmail.com) helbidera bidalita.

Urteurrenenaren harira jarri nahi duten erakusketarako argazkiak biltzen hasiko dira urtarrilean [lazkaotxikime@gmail.com](mailto:lazkaotxikime@gmail.com) helbidean eta musika eskolaren



## Lazkao Txiki, del y para el pueblo

Desplegar la música y la cultura a todo el pueblo. Ese ha sido el objetivo de Lazkao Txiki Musika Eskola durante estos 20 años. Es una escuela de música hecha desde el pueblo y para el pueblo, y han comenzado el curso con nuevos retos, con el objetivo de ampliar la oferta en torno al aniversario.



**F**ue Nerea Barandiaran quién fundó Lazkao Txiki Musika Eskola en 1996. Desde entonces no ha parado de crecer, y siempre ha trabajado para el pueblo, acercando la música y la cultura a los lazkaotarras. Así lo demuestra el emblema que utilizan desde hace cuatro años, y que resume la naturaleza de la escuela: "Escuela de música del pueblo para el pueblo".

"Además de ofrecer una enseñanza de calidad, el objetivo es impulsar actividades culturales que enriquezcan Lazkao, siempre en colaboración con el resto de grupos y asociaciones". Así lo ha resumido Aitor Biain, director de la escuela. Dos de las bases de Lazkao Txiki son aumentar la afición a la música y que en Lazkao haya opción de estudiar música.

Trabajan con un plan de estudios definido, dirigido a todas las personas mayores de 4 años: niños, jóvenes y mayores. En Lazkao Txiki también cuentan con un plan de estudios dirigido a todos los que quieran dirigir sus estudios por la vía de la música. El plan de estudios se adapta a cada alumno.

### Dos semanas importantes

Fuera de las aulas, y desde sus inicios, llevan la música a todos los rincones de Lazkao. Son muchos los actos que celebran durante todo el año, y otros tantos

en los que participan junto a otras asociaciones y otros grupos del pueblo cuándo y desde donde les llamen.

Pero además de esos actos, en Lazkao Txiki organizan dos semanas muy especiales: la semana cultural y la semana de la música. La primera suele ser en marzo o abril, y la segunda en mayo. La semana cultural la celebran bajo el lema *Crecer aprendiendo, escuchando y ofreciendo música*. "Es un proyecto que creamos hace cuatro años. Hasta entonces sólo hacíamos conciertos, pero los alumnos también pueden aprender de otros alumnos, y por eso decidimos darle otro punto de vista. Ahora organizamos charlas, conciertos y talleres durante siete días, basándonos en los tres objetivos que une el lema".

"La semana de la música es más de la escuela". Todos los alumnos no pueden participar en la representación de Navidad, por eso, paran las clases durante una semana para que todos los alumnos puedan enseñar todo lo que han aprendido durante el curso. "Solemos hacer audiciones de los alumnos, jornadas de puertas abiertas y conferencias informativas. Solemos hacer demostraciones con diferentes instrumentos musicales, suele haber cuenta cuentos y conciertos de combos". Las actuaciones suelen ser en distintos lugares de Lazkao, "por que son actuaciones hechas del pueblo para el pueblo".



Además de estas dos citas anuales, esto últimos años Lazkao Txiki también cuenta con otras dos citas importantes. Por un lado, la colaboración que hizo la escuela de música para el festival que celebro Aspanogi en Lazkao. Y por otro lado la participación del grupo The Kites en el programa A Ze Banda! de EITB.

### Nuevos proyectos e ideas

El curso 2016-2017 está siendo especial para Lazkao Txiki, ya que se cumplen 20 años desde que fundaron la escuela de música. "Queremos ser una escuela estable, basada en el plan estratégico que hemos elaborado durante estos años. Queremos crear un grupo de cuerda, una orquesta, dar cabida a otros instrumentos que no tienen tanta aceptación, y así lograr que todas las formaciones sean permanentes".

Quieren que Lazkao Txiki sea una escuela de música y danza. Quieren añadir a su oferta la danza contemporánea, la danza

moderna y el ballet. "Sabemos que en Lazkao hay interés, pero faltan servicios. Estamos hablando con el ayuntamiento y parece que la cosa pinta bien. El propósito es que el nuevo proyecto esté en marcha el curso 2017-2018"

### Lazkao Txiki-XX (1996-2016)

Los responsables de Lazkao Txiki quieren celebrar el 20 aniversario de la escuela de música junto con todos los lazkaotarras, para lo que están preparando una celebración especial. Quieren poner una exposición de fotografías donde se resuma toda la trayectoria de Lazkao Txiki, por lo que han hecho un llamamiento a todos los que tengan fotografías para que las lleven a la escuela o las manden por correo electrónico a [lazkaotxikime@gmail.com](mailto:lazkaotxikime@gmail.com). Comenzarán a recoger las fotografías a partir de enero.



### Lazkao Txikiren babesean

1994an sortu zen Lazkaon lehen abesbatza, Jabier Muruamendiaren eta beste hainbat lazkaotarren eskutik. Baino orain bost urte, Orobioneko hainbat kide musika eskolara gerturatu zirela lagunten eske, Muruamendiarazek hasitako bideari jarrapena emateko nahia adieraziz. Musika eskolan ez zegoen abesbatzarik orduan, eta hala ekin zioten bideari. Gaur egun 27 abeslarik osatzen dute taldea.

Aitor Biain eskolako zuzendariak azaldu duenez, "Gabonetan, kurtso amaierako ekitaldian eta musika eskolak antolatzen dituen emanaldietan parte hartzen du abesbatzak: musika astean, kultur astean eta Santa Zezilia egunean". Txindoki gerontologikoan ere egiten dute saioa urtero.

Ostiraletan elkartzen dira entseguak egiteko, eta estilo ugari-tako abestiak kantatzen dituzte, "16.mendekoetatik hasi eta gaur egunera arte, euskal folklorea, musika sakroa...". Abestea gustuko duten pertsonek osatzen dute abesbatza, baina erre-lebo falta handia dago, eta, hori dela eta, etorkizunera begira beste formatu batean lan egiteko asmoa dute.

### Al amparo de Lazkao Txiki

De la mano de Javier Muruamendiaraz y otros lazkaotarras, 1994 se creó el primer coro en Lazkao. Pero hace cinco años, los miembros de Orobiono acudieron en busca de ayuda a la escuela de música, para así poder dar continuidad a la labor que comenzó Muruamendiaraz. En ese momento no había coro de mayores en la escuela de música, y decidieron aunar fuerzas. Hoy, el coro está formado por 27 voces.

Según ha explicado Aitor Biain, director de la escuela, "hacemos las actuaciones en Navidad, a finales de curso y en las actuaciones que organiza Lazkao Txiki Musika Eskola: en la semana de la música, en la semana cultural o el día Santa Cecilia". También cantan todos los años en el centro gerontológico Txindoki.

Ensayan todos los viernes por la mañana, y cantan canciones de todo tipo, "empezando por canciones del siglo 16 hasta los más actuales, canciones de folclore vasco, música sacra...". El coro está formado por personas a las que les gusta cantar, pero la falta de relevo y nuevos cantantes han originado un nuevo rumbo cara al futuro.

# NEREA BARANDIARAN

Lazkao Txiki Musika Eskolaren sortzailea  
Fundadora de Lazkao Txiki Musika Eskola

Musika eskolaren haziak indartsu fruituak ematen ari direnean, atzera begiratu eta orain arte biritakoa kontatzeko eskatu di-date. Ufa, ze azkar pasa diren hogeい urte!

90.hamarkadaren hasieran, Lazkaon musika ikasteko zegoen aukera mugatua zen. Nik, ordurako, musika alorreko hainbat ikasketa bukatuta nituen, eta beste musika eskola batzueta biritako esperientziak, Lazkaok ere halako zerbait merezi zuela pentsatzera eraman ninduen. Baino, zer zen hura, erabakia edo ametsa? Familiatik datorkit musikari sena: Lazkaotxiki bertso-laria... Gaur egun musika eskolan lankide dudan Beñat Barandiaran lehengusua ere txiki txikitatik ezagutu nuen gitarrarekin! Beraz, ulergarria da nere barruan amets hark pisu handia izatea.

Erabakiaren atzean, ordea, antolamendua, gestioa, zenbakial, ekonomia... katrapila mordoa zeuden, eta gai haiet denak gorroto nituen! Baino ametsa errealtitate bihurtzeko, partituk estatutuekin lotu behar izan genituen, instrumentuak bilerekin, haurrak irakasleekin, proiektuak politikariekin... hari batetik zintzilik egon zen behin edo beste, baina jakin izan genuen zuzen bideratzen, taldelean izanez hasieratik Lazkao Txiki musika eskolaren oinarria.

Lazkao Txiki Musika Eskola izango zenaren lehen ikasturtea abian zen 1.996an, gure etxearen. Lehen ikasturte artan ikasle kopuru txikia aritu zen, 12 bat ikasle eta 3 irakasle, tartean gaur egun ere irakasle den Lurdes Lerma eta geroxeago iritsitako Fredi Pelaez. Baino, urtetik urtera bikoizten (eta hirukoizten eta laukoizten) joan ziren zenbakial. Dozena erdi urteren bueltan, ehun ikasletik gora eta sei irakasle ginen. Ataunen eta ikaztegietan ere ematen genituen eskolak. Ondorengo urteetan San Benito ikastolan eta Gerriko gaineko pisu batean aritu ginen. Baino geroz eta azpiegitura gehiago behar genituen.

Puntu honetan, bereziki aipatu nahi nuke 1992an Eusko Jaurlaritzak lege bihurtu zuen dekretua. Ordura arte zeuden musika eskolak legeztatu zituzten, eta Lazkao Txiki izan da gerotzik legeztatu den musika eskola bakarretakoa. Ibilian ibilian, Lazkaoko udaletxea izan da musika eskolak gaur egun duen mailara iritsi izanaren beste zutabetako bat, Eusko Jaurlaritzarekin batera. Buruhauste eta jarduneko eztabaideetatik harago, herriaren eta herritarren beharrak ulertzen jakin izan dugu, eta entitate ezberdinaren artean lankidetza garatuz zerbitzu bikain bat ematen.



Gaur egun ere, Lazkao Txiki Musika Eskolaren balorazio kualitatiboa bikaina dela uste dut. Kanpoko lagunak Lazkaora etortzen direnean (ziur hau zuei ere gertatu zaizuela), txundituta geratzen dira herriak duen egiturarekin eta "biziarekin". Herriaren dinamismo horretan aktore garela uste dut, hainbat gazte eta heldu implikatu ditugulako. Eta partaide izan direnean, maila alta usteko gaitasuna izan dutelako. Horren adibide dira, urtean zehar egiten dugun kontzertu sorta, helduen koruaren emanaldiak, The Kites taldeak EITBko A ze banda! saioan lortutako oihartzuna...

Hogeい urte hauetan, adin, gizarte maila, ikuspuntu politiko, arraza... ezberdinak jendea zurrubilo honestan elkartu dugu, eta pertsona bakoitzaren ezagutza maila handitu dugu. Eta ez hobby bezela soilik, goi mailako musika ikasketak kontserbatorioan egiteko ere prestatu baititugu zenbait ikasle. Musika erabiliz terapia laguntza ere egin dugu, eta emaitza guztiak bihotzeraino iritsi zaizkigu!

Kuantitatiboki, zenbakien esparruan, alegia, ikasle eta lanpostu numeroak goruntz doaz. Biztanleriaren arabera, Euskal Herri osoan ez dira herri asko izango Lazkaok adina ikasle izango dituenik musika eskolan. 14 irakasle, idazkari bat, eta 350 ikasletik gora gara gaur egun. Egoera ekonomikoa da gehien kezkatzen nauena oraindik; Aitorren (musika eskolako zuzendaria gaur egun) eta zuzendaritza taldearen buruhaustea ere bada gai hau. Etorkizunerako oinarri sendoak jarri beharrean gaude.

Bukatzeko, eskerrak ematea dagokit Lazkao Txiki Musika Eskolako lankideei; eta taldean osatzen dugunok, eskerrik sakonenak, ikasleei, ikasle ohiei, gurasoei, Lazkaoko Udaleri, herriko beste hainbat kultur elkareri eta eragileri... Ea urte askoan su hau pizturiak edukitzeko gaitasun eta adorerik izaten dugun.

Recuerdo como en 1996, una vez terminada la carrera de piano y haber transcurrido un periodo en la docencia, me anime a arrancar el proyecto de enseñanza de la música en Lazkao. Había pequeños grupos que enseñaban cosas puntuales en Lazkao, pero poco estructurados y enlazados. Empezamos en mi vivienda con 12 alumnos y 3 profesores, pero tenía claro que la meta era ofrecer un abanico amplio de instrumentos, corales, armonía... y además para cualquier edad!!!

Hoy es el día en el que la Musika Eskola Lazkao Txiki tiene 14 profesores, una administrativa y mas de 350 alumnos (de entre 4 y 80 años) y un programa de enseñanza add-oc. Quiero decir con esto, que a nadie se le pone un pentagrama de Beethoven el primer día y un examen el sexto mes, sino que se prepara un aprendizaje sobre los objetivos del alumno.

Durante estos 20 años de tal crecimiento, hemos tenido momentos críticos. No a nivel académico, pero si a nivel de gestión empresarial. Incluso a punto de no seguir con el proyecto, pero... Lazkao se merece una Musika Eskola de primer nivel, y lo tiene. Y gran culpa de ello, lo tienen algunas personas del Gobierno Vasco, del ayuntamiento de Lazkao, de empresas del entorno y padres y alumnos de LTX.

Pienso que hoy en día la base académica de la escuela es muy sólida, y también, honestamente, que el gran esfuerzo realizado por el ayuntamiento en ubicar físicamente la escuela, apuntala el proyecto en cuanto a infraestructuras. Es el apartado económico el que queda por consolidar.

Para terminar, espero que los cientos de alumnos de Lazkao Txiki Musika Eskola, sigan siendo los alegres embajadores de nuestro-vuestro proyecto. Ya lo dice Porrotx: "Kantatzen ez duena, ez da pozik bizi".

# San Benito Ikastola

## Lazkaori begira haziz

Jaxinto Setienen eta Aitor Murumendarazen ekinenez sortu zen Lazkaoko Ikastola 1963an. San Migel Ikastola izenarekin, hamabost ikasle eta Maria Isabel Aldasoro eta Mari Karmen Eizagirre andereñoak izan ziren ikastolako lehen kideak. Urte gogorrak izan ziren hasierakoak, baina urterik urte oztipoak gaindituz joan dira, gaur egungo hezkuntza eskaintza zaba-la izateraino. Gaur egun 1180 ikasle ditu, baina ikastolaren helburuak sorrerako bera izaten jarraitzen du: "Gure haurrek euskaraz heztea".

Asko dira urtean zehar San Benito Ikastolak herriari begira antolatzen dituen ekintzak. Ohiko hezkuntza eskaintza aberasten duten proiektuak dira, ikastola herriarekin oraindik gehiago lotzen dutenak.

Creciendo junto  
a Lazkao

La Ikastola de Lazkao surgió en 1963, con el esfuerzo de Jaxinto Setien y Aitor Muruamendaraz. Bajo el nombre San Migel Ikastola, la ikastola comenzó con 15 alumnos y las profesoras María Isabel Aldasoro y María Karmen Eizagirre. Fueron años muy duros, pero con el transcurso del tiempo han conseguido superar metas hasta llegar a la amplia oferta educativa actual. Hoy en día, San Benito Ikastola cuenta con 1180 alumnos, pero el objetivo sigue siendo el mismo que hace 53 años: "Educar a nuestros hijos en Euskara".

Son muchos los actos que durante todo el año organiza San Benito dirigidos a todo el pueblo. Son proyectos que enriquecen la oferta educativa y que unen todavía más a San Benito con Lazkao.

### Pausoka proiektua / Proyecto Pausoka:

Lazkaoko Udalarekin, Txindoki egoitzarekin, Orobione, Azki, eta Nagusilan elkarteekin eta Osakidetzarekin batera parte hartzen dute San Benito ikastolakoek Pausoka egitasmoan. Ikasleek hilean behin parte hartzen dute, eta Txindoki egoitzako egoilarrei laguntzen diete. Kalean ibiltzeko dituzten zaitasunen jakutin, paseora eramatzen dituzte. DBHko 4. mailako ikasleak izan dira aste hauetan adinekoen laguntzaile. Haien artean hasi dira elkar ezagutzen eta gustura ari dira elkarlanean.

Pausoka ez da, ordea, San Benitoko eta Txindokiko kideen arteko elkartruke bakarra. Batxilergoko bigarren urtean biología ikasten duten ikasleekin urtero egiten dute trukea Txindokikoek. Egun bat egiten dute elkarrekin ikastetxean, ikasleek ikasi dituzten experimentuak Txindokikoei erakutsiz. Trukena beste aldera ere ematen da gero. Orduan ikasleak izaten dira Txindokira bisitaren joaten direnak. Egoitza ezagutu eta bertako erabiltsaileek egiten dituzten ekintzen berri jasotzen dute ikasleek.

Los alumnos de San Benito, junto con el ayuntamiento, la residencia Txindoki, las asociaciones Orobione, Azki y Nagusilan y Osakidetza, participan en el proyecto Pausoka. Con su participación mensual, los alumnos de 4º de ESO, les ayudan a salir del centro a los usuarios de Txindoki, para que junto al resto de participantes puedan salir a dar un paseo por las calles de Lazkao. Durante estas semanas han congeniado de manera muy satisfactoria ambas partes, por lo que el resultado está siendo el esperado.

Pero Pausoka no es el único proyecto en el que se unen los alumnos de San Benito y los residentes de Txindoki. Todos los años hacen un intercambio, donde los alumnos de biología de segundo de bachiller les enseñan los experimentos aprendidos en clase y los residentes de Txindoki les enseñan la labor y las actividades que llevan a cabo durante todo el año.



Txindoki egoitzako egoilarrekin paseora  
irtetzen dira ikasleak hilean behin



## Kantujira:

Euskara eta euskal kultura indartzeko asmoz ostiral goizetan plazan elkartzen dira Gerrikoko kideekin eta Maizpideko ikasle eta irakaslekin batera, elkarrekin euskal kantak abesteko. Iaz hasi ziren elkarlanean, Zarauzko ikastolan martxan jarritako egitasmoari tiraka. Ostiral bakoitzean ikasle talde batiek parte hartzen du Kantujiran, baina abenduaren 2an ikastolako kide guztiak elkartu ziren, Euskararen Egunaren ospakizun gisara. Herritar eta familia ugari ere bat egin zuten.

Con el objetivo de impulsar el Euskara y la cultura vasca, todos los viernes por la mañana se reúnen en la plaza de Lazkao alumnos y profesores de San Benito y Maizpide junto con representantes de la asociación Gerriko, para que todos juntos canten canciones vascas. Tomando la idea que impulsó la ikastola de Zarautz, iniciaron esta actividad el año pasado. Cada viernes participa un grupo distinto de San Benito, pero el 2 de diciembre hicieron un acto especial por el día del Euskara donde participó toda la ikastola, junto con las mencionadas asociaciones, familias y vecinos que se unieron a la fiesta.

 *Ostiral goizero plazan egiten dute kantu jira, Euskara eta euskal kultura indartzeko helburuarekin*

## Eskola kirola / Deporte escolar:



Lehen Hezkuntzako 3.mailatik 6.mailara arteko ikasleek parte hartzen dute eskolarteko kirol ekintzetan. San Benitoko bi koordinatzaileren laguntzarekin gurasoentzako parte hartza handia da eskola kirolean. Josune Aranburu San Benito ikastolako zuzendariak azaldu duenez, "gurasoak aritzen dira entrenatzaile, denak helburu bati lotuta: kirol profesionalak jasotzen den ereduaren gainetik dauden beste balore batzuk lantzea eta sakontzea". Taldean aritzearen garrantzia eta ohitura osasungarriak lantzea dira San Benito ikastolak eskola kirolarekin lortu nahi dituen helburuak.

"Ikastola guraso kooperatiba bat den aldetik, ezinbestekotzat dugu gurasoentzako parte hartza, eta eskola komunitatearen arteko elkarlana bultzatzu nahi dugu". Ohitura osasungarriak ere bultzatzu nahi dituzte: kirola egiteak osasunean duen garrantzia eta elikadura on bat. "Ikasle asko hasi dira partida ondorengo jan ohiturak aldatzen, opil industrialak jan ordez ogitarteko txikiak eta fruta jaten".

Los alumnos de tercero a sexto de Educación Primaria participan en competiciones deportivas interescolares. Junto a dos coordinadores de San Benito, la participación de las familias es importante, tal y como lo menciona Josune Aranburu, directora de San Benito: "Padres y madres hacen de entrenadores, todos con un mismo objetivo: profundizar y labrar otros valores distintos a los que perciben los alumnos del deporte profesional". San Benito ikastola desea aunar los valores del trabajo en equipo y los hábitos saludables con el deporte.

"San Benito es una cooperativa, por lo que es imprescindible la participación de las familias, porque queremos fomentar la participación de la comunidad escolar". También quieren subrayar la importancia que tiene seguir hábitos saludables: la importancia que tiene para la salud hacer deporte y una sana alimentación. "Son muchos los alumnos que han sustituido la bollería industrial por pequeños bocadillos y fruta para comer después de los partidos".



## Bertsolaritza eta ahozkotasuna / Versos y comunicación oral:

San Benito ikastolako 5. eta 6. mailako ikasleek astean ordu bat ematen dute bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzen. Ikastolen elkartarekin lankidetzen aritzen den bertsolari baten gidaritzapean bertsolaritza eta ahozkotasuna lantzen dute, ondoren, ikasturtean zehar ikasi dutena urte amaierako ekitaldian edo bertso txapelketetan erakusteko. San Benitoko ikasle batek baino gehiagok, gainera, emaitza bikainak lortu ditu eskolarteko txapelketetan, adibidez.

Durante una hora a la semana, y bajo la tutela de un bertsolari que colabora con la Asociación de Ikastolas, los alumnos de 5º y 6º curso aprenden como elaborar versos en Euskara bajo rimas y melodías específicas. Lo aprendido en clase lo muestran después en el acto de final de curso y en varias competiciones escolares. Ya son varios los alumnos que han despuntado y han conseguido más de una txapela.



## Antzerki taldea / Grupo de teatro:

Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikasleek (bi taldetan banatuta) parte hartzen dute antzerki taldean. Koordinatzailea eta ardura-duna Kristina da. Udalarekin batera lantzen ari diren proiectua da, ikastolak bultzatutakoa bada ere, Lazkaoko antzerki taldea sortzea baita helburua. Harrobia eskolan dago, baina helduei ere zabaldu nahi diente aukera.

"Ikasle guztiengintza interesak eta abileziak ez dira berdinak eta, adibidez, kirolaz gain beste zaletasun batzuk dituztenei beste alternatiba bat eskaintzeko asmoz sortu zen antzerki tailerra", argitu du Aranburuk. Zortzi urte inguru dira egitasmoarekin hasi zirela, eta urte beteko etenaren ondoren iaz hasi ziren berriro. Astelehenero elkartzen dira entseguak egiteko, eta ikasturte amaieran ikuskizuna plazaratzen dute.

Son los alumnos de primaria y secundaria (divididos en dos grupos) los que participan en el grupo de teatro. Con la ayuda de la coordinadora y profesora Kristina, trabajan todos los aspectos relacionados con la interpretación. Es un proyecto que llevan a cabo junto con el ayuntamiento, y aunque sea una iniciativa lanzada por San Benito, el objetivo es crear un grupo de teatro en Lazkao. La cantera está en la ikastola, pero también quieren dar oportunidad a más gente.

"No todos los alumnos tienen las mismas habilidades e intereses, por lo que se puso en marcha un grupo de teatro para aquellas personas que, por ejemplo, tienen intereses más allá del deporte", aclara Aranburu. Ya son ocho los años que llevan con el grupo de teatro, y aunque ha habido una pausa de un año, el año pasado comenzaron otra vez". Se reúnen todos los lunes para ensayar, y al finalizar el curso actúan ante el público.

## San Prudentzio jaietako jangela / Comedor en fiestas de San Prudencio

Herriko jaietan afari zerbitzuak ere eskaintzen dituzte, eta bertan lortutako etekin ekonomiko guztia ikastolako gastuetara bideratzen da. 2003az geroztik eskaintzen dute zerbitzua, Lazkaon egin zen Kilometroak jaiaren baitan antolatu baitzuten lehen aldiz. "Lortutako dirua ikasleek behar dituzten baliabideetara bideratzen da".

Zerbitzua eskaintzeko, baina, ezinbestekoa da familien laguntza eta parte hartzea. Guztira 150 voluntario behar izaten dituzte, eta erdia baino gehiago Ikastolako langileak izaten dira. Ikastolak dei egiten die gurasoei, datorren urteko San Prudentzio jaietan euren aletxoa jartzera gerturatzen daitezen: "Azken finean elkarlana da, eta elkarlan horrekin eskola komunitateari laguntzen zaio. Herrian ikastetxe bakarra gara eta herriko gainerako eragileekin harremanak estutzeko ere balio du", zehaztu du Aranburu.

La ikastola San Benito ofrece servicio de cenas en fiestas de San Prudencio, y todo el dinero obtenido se dirige a cubrir las necesidades de la ikastola. El servicio se ofrece desde 2003, año en el que se celebró en Lazkao la fiesta de las Ikastolas Kilometroak. "El dinero obtenido del servicio se invierte en recursos para los alumnos".

Pero para poder ofrecer este servicio, es imprescindible la participación de las familias. En total participan más de 150 voluntarios, pero más de la mitad suelen ser trabajadores de la ikastola. Por eso, desde San Benito hacen un llamamiento a todas las familias para que se animen a poner su granito de arena: "A fin de cuentas se trata de trabajar en equipo y así ayudar a la comunidad educativa. Somos el único centro en Lazkao y nuestra participación es vital para estrechar lazos con las asociaciones del pueblo", señala Aranburu.



## Elkartasun Astea / Semana Solidaria:

Haur Hezkuntzako 5. mailako, lehen Hezkuntzako 2., 4., eta 6. mailako eta DBHko 2.mailako ikasleek parte hartzen dute elkartasun astearen barruan antolatzen den ekitaldian. Abenduaren 16an egin zuten aurtengo funtzioa. Ikasleek ikasgelan egiten dituzten lanketak plazaratzen dira emanaldiarekin, eta solidaritatea bultzatzea da helburua. "Lortzen diren etekin guziak Ghiara-ra (Rwanda) bidaltzen dira, bertan dituzten proiektuak garatzeko. Ondoren feedback bat egoten da: Ghiaratik informazio txostenak eta argazkiak bidaltzen dizkigute, Ikastolako komunitateak ikus dezagun bidalitako laguntzarekin lortu ahal dutena". Iazko eta aurtengo emanaldiak ikastolako webgunean ikusi daitezke.

Iaz lehen aldiz irakasleek ere parte hartu zuten emanaldian. Sorpresa izan zen, eta aurren sorpresa handitu egin dute. Herriko eragileei dei egin diente parte hartzeko, eta ikastolako irakasleek eta zuzendaritzako kideez gain, artezkaritzako kideek eta Lazkaoko hainbat erakundetako ordezkariek ere parte hartu dute. "Herriko elkarteen eta eragileen arteko elkarlana bultzatu nahi izan dugu".

Elkartasun astearen barruan Lehen Hezkuntzako 5. mailako ikasleek bidezko merkataritzako produktuak erosteko kanpaina bat ere egin dute ikastolan.

Elkartasun astearen barruan egiten dute baita ere merkatu txikia. Etxean atzera geratutako jostailuak eta egoera onean dau-denak salgai jartzen dituzte oso prezio xumeetan. Bildutako dirua Rwandara bidaltzen dute. Baino proiektuak baditu beste bi helburu: "Berrerabilpena, zuk ia erabiltzen ez duzuna beste batek erabili dezake. Eta arazo ekonomikoak dituzten familiek beren seme-alabentzat jostailuak erosi ditzakete Gabonei begira eta prezio eskuragarrieta". Jostailuak, jokoak, eta liburuak egoten dira salgai. Lazkaon egindako merkatu txikian sobratu-takoa Tolosara eramatzen dute gero, bertan egiten den merkatu solidaria.

Gabonetan eta Santa Ageda bezperetako kantu eskean Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako ikasleek biltzen duten dirua ere Rwandara bidaltzen dute Giarako ikasleei laguntzeko.

Los encargados de participar en el festival que se organiza dentro de la Semana Solidaria suelen ser los alumnos de 5º de Educación Infantil, 2º, 4º y 6º de Primaria y los alumnos de 2º de ESO. Este año la actuación la hicieron el 16 de diciembre. En la actuación plasman lo que han trabajado durante el curso, y el objetivo es impulsar la solidaridad. "Todos los beneficios que se obtienen se mandan a Ghiara (Rwanda), para que puedan desarrollar los proyectos que tienen allí en marcha. Después suele haber un feedback: desde Ghiara nos mandan fotos e informes para que la comunidad escolar vea los conseguido con aquello que se envía". Las actuaciones del año pasado y de este año se pueden ver en la página web de la ikastola.

El año pasado participaron por primera vez los trabajadores de la Ikastola. Fue toda una sorpresa, y este año han querido superar las expectativas. Invitaron a distintas asociaciones a que participarán en el acto y también subieron al escenario miembros de la dirección de San Benito. "Este año hemos querido impulsar el trabajo colectivo de las asociaciones de Lazkao".

Dentro de la Semana Solidaria los alumnos de 5º de Primaria han elaborado una campaña para la venta de productos de comercio justo.

La iniciativa llamada Merkatu Txikia también se ubica dentro de la Semana Solidaria. Recogen juguetes en buen estado que ya no se utilizan y los venden a módos precios. El dinero obtenido de la venta también lo destinan a Rwanda. Pero el proyecto tiene otros dos objetivos: "Impulsar la reutilización de los juguetes, ya que eso que tú ya no utilizas lo puede utilizar otra persona; y dar opción a las familias con menos recursos a poder comprar juguetes como regalo de Navidad para sus hijos". En el Merkatu Txikia se pueden obtener juguetes, juegos y libros y lo que no se vende lo llevan al mercado solidario que hacen en Tolosa.

El dinero obtenido por los alumnos de Educación Infantil y Primaria en Noche Buena y en Santa Agueda también se destina a Rwanda, para las mejoras en Ghiara.

## Sare sozialak / Redes sociales:

Sare sozialetara saltoa ere egin dute San Beniton. Ikastolako kontuak zabaltzeko ez ezik, herriko beste eragileen ekintzak ere beraien sare sozialetan islatzen saiatzen dira, "haien ekintzak gure ikasleen artean eta eskola komunitate guztian islatzen, herriko eragileen artean elkarlana sustatzeko eta herria indartze-ko". Dantza taldeek, mendi elkartek, Maizpidek, Gerrikok, udalak... antolatutako ekintzen berri ematen dute, besteak beste.

San Benito Ikastola está presente en las redes sociales, pero no sólo para hacer públicas las noticias relacionadas con el centro, también para recoger y divulgar actos, actividades y llamamientos de grupos y organizaciones de Lazkao. "Trasladamos todos esos llamamientos a la comunidad educativa para impulsar el trabajo en equipo de todas las asociaciones", ya sean el grupo de baile, la asociación de montaña, Maizpide, Gerriko, el ayuntamiento...



# Ikaslan Fundazioa, 25 urte martxan

# Fundación Ikaslan, 25 años en marcha

25 urte bete dira aurten Ikaslan Fundazioa martxan jarri zutenetik. Goierri eskolako Lanbide Heziketako erdi eta goi mailako ikasleek lan praktika gehigarriak egiten dituzten formakuntza zentroa da Ikaslan Fundazioa. Goierri Eskola eta, beraz, Ikaslan Fundazioa ikasle, irakasle eta gurasoz osatzeaz gain, balarako 18 udalek eta 40 enpresek osatzen dute. Tartean Lazkaoko Udalak.

Sorreratik 3.500 ikasletik gora igaro dira Ikaslanetik, 140 lagun urteko. 4.800.000 euroko fakturazioa du urteko eta 300.000 euroko inbertsio ahalmena. Balantzea positiboa da eta Ikaslanek erronka berrien aldeko apustua berresten du, hala nola, produkzio prozesu berrien, enpresen beharren, empleagarritasunaren edota lehiakortasunaren aurrean.

Ikaslan esker, gazteek aukera dute beste zentroetan egiten dituzten praktika orduak hirukoizteko, ezagutza teorikoa lan esparrura eramanet. Lan mundura hobeto eta azkarrago egokitzea da helburua. Bost negozio eremutan egiten dute lan, balarako punta-puntako enpresentzat.

Txalotzeko ibilbidea egin du Ikaslanek urte hauetan guztieta, eta 25. urteurrena ospatzeko arrazoiaok soberan daude. Lazkaoko Udalaren izenean, eskerrik asko eta zorionak Ikaslan osatzen duten guztiei. Urte askoan orain bezain ondo lanean jarrai dezauela opa dizuegu.

Este año se cumplen 25 años desde que pusieran en marcha la Fundación Ikaslan. Es el centro de formación donde las alumnas y los alumnos de grado medio y superior de FP de Goierri Eskola realizan prácticas de trabajo adicionales para adaptarse mejor al mundo laboral. Tanto Goierri Eskola como la Fundación Ikaslan están formados de alumnos, profesores y padres y madres de alumnos, así como de 18 ayuntamientos y 40 empresas de toda la comarca. Entre ellos, el Ayuntamiento de Lazkao.

En sus 25 años de trayectoria han pasado por sus instalaciones más de 3.500 alumnos, unos 140 por año. Cuenta con una facturación anual de 4.800.000 euros y una capacidad de inversión de unos 300.000 euros anuales. El balance es positivo e Ikaslan reitera su firme apuesta por afrontar nuevos retos como pueden ser los nuevos procesos productivos, las necesidades del tejido empresarial, la empleabilidad o la mejora de la competitividad.

Gracias a Ikaslan, los jóvenes tienen la posibilidad de triplicar el número de horas de prácticas que realizan en otros centros para aplicar el conocimiento teórico al terreno laboral. Cuenta con cinco áreas de negocio principales y en su cartera de clientes figuran las empresas más punteras de la comarca.

El trabajo realizado por Ikaslan durante todos estos años es inmejorable, y sobran motivos para celebrar el aniversario. En nombre del Ayuntamiento de Lazkao, gracias y felicitaciones a todos los que forman Ikaslan. Os deseamos que sigais trabajando en la misma línea.

# LABURRAK

## AUZOLANA EGIN DUTE

Aspaldiko urteetako ohitulari jarraituz, aurtengoan ere, Abalindik Albitxura eta San Prudentziotik Izarbasora doazen bideetan auzolanean bide basterren garbitze eta egokizte lanak egin dira. Mila esker parte hartu duzuen guztioi.

## FINALIZADO EL TRABAJO VECINAL

Una año más y siguiendo con la costumbre que se mantiene durante muchos años, se ha procedido en auzolan a labores de limpieza y mantenimiento de las cunetas y márgenes de los caminos que van de Abalin a Albitxu y de San Prudencio a Izarbaso. Gracias a todos los que habéis participado.



## GIDA KOMERTZIALA AURKEZTU DUTE

Lazkaoko merkataritza, ostalaritzza, empresa eta zerbitzuak jasotzen dituen gida argitaratu da. Helburu nagusia arlo hauetan Lazkaok duen eskaintza ezagutzen ematea da. Gida hau etxe guztietara bidali da, eta aldi berean, udalaren lazkao.eus webgunean ere aurkitu daiteke.

## PRESENTADA LA GUÍA COMERCIAL

Se ha publicado una guía con los comercios, hostelería, empresas y servicios de Lazkao. El objetivo de la misma es visualizar y dar a conocer la oferta que existe en Lazkao. Esta guía se ha buzoneado a todas las viviendas, pero al mismo tiempo también podemos encontrarla en la página web del Ayuntamiento Lazkao.eus.



## SENDIAN PROGRAMAREN IKASTAROA

SENDIAN programaren barruan, mendekotasun egoeran dauden pertsonen mobilizazioei eta transferentziei buruzko ikastaroa izan da. Bi orduko sei saiotan, gaiaari buruzko oinarrizko arauak eta irizpideak azaldu dira.

## CURSO DEL PROGRAMA SENDIAN

Dentro del programa SENDIAN, se ha hecho un curso sobre la movilidad y la transferencia de personas. En seis sesiones de dos horas cada una, se han explicado las principales reglas y criterios sobre el tema.

## ZERGAK ORDAINTZEKO HOBARIAK

Datorren urterako zergetako aldaketetako bat Ibilgailu klasiko eta 25 urte baino gehiago dituzten ibilgailuen hobaria izanik, esan, datorren urteari begira hobaria aplikatzeko eskaera egin nahi duenak, eskaera abenduaren 31 baino lehenago egin behar duela.

## BONIFICACIONES PARA LAS TASAS

En las tasas para el año que viene uno de los cambios corresponderá a los vehículos clásicos y a los que tengan más de 25 años. Por lo tanto, los que quieran obtener la bonificación, deberán hacer la petición antes del 31 de diciembre.



### FITOSANITARIOEN ERABILERA IKASTAROA

Lartxai elkartean eginiko egokitzetan lanen ondoren, azken aste hauetan lehenengo ikastaroa ere antolatu da. Fitosanitarioen erabilerari buruzkoa izan da eta egun sustantzia hauen erabilerarako beharrerezkoak diren baimenak lortu ahal izateko balio izan du. Erantzun oso ona izan du eta 66 pertsonek parte hartu dute.

### CURSO SOBRE EL USO DE FITOSANITARIOS

Tras los acondicionamientos realizados en Lartxai, durante las últimas semanas se ha impartido un curso sobre el uso de los Fitosanitarios. Este curso ha servido también para que los asistentes puedan obtener los permisos que a día de hoy requiere el uso de estas sustancias. El curso ha recibido una excelente respuesta y han participado 66 personas.

### ESKAPARATE IKASTAROA EGIN DUTE

Gabonei begira antolatutako eskaparate lehiaketaren harira, eta merkataritzazko sustatzeko udalaren plangintza barruan, KMG estudioren eskuak, azaroaren 28an eta 29an Lazkaoko merkatarien, erakusleihoko ikastaroan parte hartzeko aukera izan dute. Arerian emandako ikastaroan 27 merkatarien parte hartu dute.

### FINALIZADO EL CURSO SOBRE ESCAPARATISMO

Al hilo del concurso de escaparates que se ha organizado para novedades, y dentro del plan de dinamización para el comercio, los comerciantes de Lazkao han tenido la oportunidad de participar, de la mano de KMG estudios, en un curso sobre escaparatismo. En este curso han participado 27 comerciantes.



Egun hauetan hil da Diego Gurrutxaga, 1979 eta 1991 artean Lazkaoko alkate izan zena. Lazkaoren alde egindako lan guztiagatik, eskerrik asko.

A fallecido Diego Gurrutxaga, el que fuera alcalde de Lazkao entre 1979 y 1991. Gracias por toda la labor realizada a favor de Lazkao.

### EUSKARAREN EGUNA

Abenduaren 3an, urteroko legez, Euskararen nazioarteko eguna ospatu zen. Lazkaon ere honek izan zuen bere tokia. Abenduaren 2an San Benito Ikastolaren eskuak gaztetxoentzat, eta herriko elkarreta eta udalaren arteko elkarlanean antolatutako pregoi, kantu kalejira, eta eguna amaitzeko Kepa Junkeraren emanaldia izan genituen. Dena den, Euskararen eguna bat izanik, erabilera urte guztiko egunetara zabaldu dezagun.

### DÍA DEL EUSKARA

El 3 de diciembre se celebra el día internacional del Euskara, y un año más, en Lazkao también se celebró. El día 2 de diciembre los alumnos de San Benito, junto con varias asociaciones de Lazkao y el ayuntamiento, se leyó un pregón, se hizo la Kantujira en la plaza, y para terminar el día se pudo disfrutar del concierto de Kepa Junkera. Aunque el día del Euskara sea uno, ampliemos el uso al resto del año.

### INDARKERIA MATXISTAREN AURKAKO EGUNA

Pasa den azaroaren 25ean minuto bateko ixiltasuna gorde zen indarkeria matxistaren biktimen guzten omenez. Ixilunearen aurretik, baina, elkarretaratzean parte hartu zutenek Lazkao Txiki musika eskolako ikasleek eskainitako hiru abestiz gozatzeko aukera izan zuten. Hausnarketarako gonbita izan ziren musika doinuak, urte guztian zehar oso gogoan izan behar dugun hausnarketa bat.

### DÍA CONTRA LA VIOLENCIA MACHISTA

El pasado 25 de diciembre en la plaza del ayuntamiento se guardó un minuto de silencio por todas las víctimas de la violencia machista. Previo al minuto de silencio los allí presentes pudieron escuchar tres emotivas canciones de la mano de Lazkao Txiki musika eskola. Acordes musicales que invitaban a la reflexión, reflexión que deberíamos tener muy presente también el resto de los días del año.

## ZABORRA, URA ETA OGZ HOBARIAK

Ohiko etxebizitzetako hiri lurreko ondasun higiezinen gaineko zerga, zaborra, ura eta estolderiaren kontzeptuen ordainketarako 2016ari da-gozkion laguntzak eskatzeko epea urtarilaren 15etik otsailaren 1era izango da. Laguntzak jasotzeko urteko diru-sarreren baldintzak:

## AYUDAS SOBRE BASURA, AGUA E IBI

El plazo para la petición de las ayudas para el pago de las tasas sobre bienes inmuebles, basura, agua y alcantarillado correspondiente al 2016 es del 15 de enero al 1 de febrero. Las condiciones para solicitar las ayudas mensuales son las siguientes:

### Hileroko soldata maila, Profesioarteko Gutxieneko Soldatarekin konparatuz (PGS: 707,60 €)

Nivel del salario mensual, en comparación con Salario Mínimo Interprofesional

	<b>PGS (707,60)</b>	<b>PGS+%20</b>	<b>PGS+%40</b>	<b>PGS+%60</b>	<b>PGS+%80</b>	<b>PGS+%100</b>	<b>PGS+%120</b>	<b>PGS+%140</b>	<b>PGS+%150</b>
	0,00	9.906,40	11.887,68	13.868,96	15.850,24	17.831,52	19.812,80	21.794,08	23.775,36
	9.906,40	11.887,68	13.868,96	15.850,24	17.831,52	19.812,80	21.794,08	23.775,36	24.766,50
<b>1 kide</b>	%100	%75	%50						
<b>2 kide</b>	%100	%100	%75	%50	%625				
<b>3 kide</b>	%100	%100	%100	%100	%75	%50	%25		
<b>4 kide</b>	%100	%100	%100	%100	%100	%100	%75	%50	%25

- 5 kide edo 5 kidetik gorako familiak %100aren hobaria izango dute, baldin eta familia horretako diru sarrera urtean 35.000 euro baino gehiago ez bada.
- 5 kide edo 5 kidetik gorako familiak %50aren hobaria izango dute, baldin eta familia horretako diru sarrera urtean 45.000 euro baino gehiago ez bada.
- 3 edo 4 kidetako familietan, 21 urtetik gorakoa kide bakarra denean, familiak beste kide bat gehiago izango balu bezala kontatuko da.

- Las familias de 5 o más miembros tendrán una bonificación del 100%, salvo si los ingresos superan los 35.000 euros anuales.
- Las familias de 5 o más miembros tendrán una bonificación del 50%, salvo si los ingresos superan los 45.000 euros anuales.
- En las familias de 3 o 4 miembros, y en los casos en los que un miembro sea mayor de 21 años, este contará como un miembro más.

## GABONETAKO ORDUTEGIAK KIROLDEGIAN HORARIO DE NAVIDAD EN EL POLIDEPORTIVO

Astelehena Lunes	Asteartea Martes	Asteazkena Miércoles	Osteguna Jueves	Ostirala Viernes	Larunbata Sábado	Igandea Domingo
					24	25
26	27	28	29	30	31	1
2	3	4	5	6	7	8

Itxita  
Cerrado

18:00ak arte irekita  
Cerrado hasta las 18:00

Ohiko ordutegia  
Horario habitual

Gabonak direla eta, kiroldegia abenduaren 24, 25, 31 eta urtarrilaren 1, 6 eta 8an itxita egongo da. Urtarrilaren 5ean, berri, 18.00ak arte egongo da irekita. Gainontzeko egunetan ohiko ordutegian irekita izango da. Udal liburutegian, berri, abenduaren 26tik urtarrilaren 5era bitartean, lan egunetan, goizez egongo da irekita.

## GABONETAKO ORDUTEGIAK UDAL LIBURUTEGIAN HORARIO DE NAVIDAD EN LA BIBLIOTECA

Astelehena Lunes	Asteartea Martes	Asteazkena Miércoles	Osteguna Jueves	Ostirala Viernes	Larunbata Sábado	Igandea Domingo
26	27	28	29	30	31	1
2	3	4	5	6	7	8

Itxita  
Cerrado

Liburutegia goizez  
Abierto por la mañana

Durante las Navidades los días 24, 25 y 31 de diciembre y los días 1, 6 y 8 de enero el polideportivo permanecerá cerrado. El día 5 de enero, estará abierto únicamente hasta las 18:00. El resto de días se mantendrá el horario habitual. En cuanto a la biblioteca se refiere, desde el 26 de diciembre hasta el 5 de enero estará abierto sólo los días lectivos y por la mañana.



LAZKAOKO  
UDALA


# GABONAK LAZKAON



Abenduaren 16etik 18ra  
**EUSKAL LIBURU ETA DISKO AZOKAREN XXVIII. EDIZIOA**  
buruhaundiak, haur jolasak, bertsolariak... eta jostailuen salmenta solidarioa



Abenduak 20  
**MUSIKA ESKO-LAKO EGUBERRI KONTZERTUA ARERIAN**  
18:00etan



Abenduak 24  
**OLENTZERO ETA MARIDOMINGIRI HARRERA**  
17:30ean



Abenduak 25  
**JAIOTZA BIZIDUNA**  
13:00ean




Abenduaren 27tik 30era  
**IZOTZ PISTA**  
11:00-13:30  
16:30-20:30



Abenduak 30  
**JUNDAJO TXARANGA HERRIAN ZEHAR**  
19:00etan



Abenduak 31  
**SAN SILVESTRE LASTERKETA**  
Haurrak: 11:30  
Helduak: 13:00



Urtarrilak 3 eta 4  
**ZINE EMNALDI BEREZIAK HAURRENTZAT 1€-TAN**  
17:30ean Arerian



Urtarrilak 4  
**LAGUNTASUNA RONDALLA**  
19:00etan



Urtarrilak 5  
**ERREGE KABALGATA**  
18:30ean



Urtarrilak 8  
**ASTOTXO EGUNA**